



## ‘IZAR ETA ZENAIDA’: ELKARTASUNAREN INDARRA

*Eidabe Ekimen Kulturalak eta Euskadi-Cuba elkarteak ekoitzitako antzezlan da eta Pabilioi 6 aretoan estreinatuko dute irailaren 30ean. Gidoia eta zuzendaritza Galder Perez deustuarraren esku egon da.*

Testua: Amaia Ruesgas Argazkiak: Eidabe Ekimen Kulturalak

Izar eta Zenaida dira antzezlaneko protagonistak. Biak neskatok gazteak dira, euskalduna bata eta kubatarra bestea. Keator maltzurak kaosa eragin du. Mundua birrintzen ari da, dena hankaz gora dago, Iparra Hegoan eta Hegoa Iparran. Anabasaren erdian Izarrek eta Zenaidak elkar ezagutuko dute.

Elkarri eskua ematen diotenean botere magikoa dutela ikusiko dute. “Lortuko dugu elkarrekin, gure eskuen boterearekin” lelo magikoa esaten dutenean, munduaren suntsitzea geratzeko gai dira, munduari kolorea itzultzeko gai, alaitasunez bizitzeko kapaz... den-dena elkartasunaren indarrari eta botereari esker.

‘Izar eta Zenaida: indar magikoa’, 5-10 urtetako haurrei zuzendutako abenturazko istorio komikoa da, eta elkartasunaren balioaz eta garrantziaz hausnartzera gonbidatzen du. Galder Perez antzezlaneko gidolariaren eta zuzendariaren hitzetan, “hamaika ikuspuntutatik ulertutako elkartasuna da antzezlanaren



idea nagusia”. Hala, Iparraren eta Hegoaren arteko ezinbesteko laguntza eta ulermena azpimarratzen da: “munduarekin asko jolasten dugu; uneoro biraka ari da eta bueltan ematen duenean, bat-batean Iparra eta Hegoa aurrez aurre daude, baina leku berean. Une horretan, aurrera egiteko irtenbide bakarra elkarri laguntzea da, bestela munduak crash egingo du eta betiko amaituko da dena. Hor jaiotzen da elkartasuna: ni zutaz ikasi behar dut eta zuk nitaz dibertitzeko, gauzak ezagutzeko, eta boteretsuagoak sentitzeko... ze demontre!”.

Hori horrela, Izarren eta Zenaidaren errealitateak oso ezberdinak izan arren, “ahultasunak eta beldurrak” komunean dituztela argi du Galderrek: “Kokoa existitzen denaren beldurra, kokoa gauza asko dira... baina, batez ere, horri guztiari aurre egiteko indarrak batzen ditu; kokoa ez dela existitzen ‘ez iezaguzue ziririk sartu’ pentsatzeak, eta existitzen bada, aurre egin diezaioketela eta haiak kokoa jan dezaketela sinesteak. Horrez gain, hainbat neskek komunean izan ditzaketen gauzek batzen dituzte: lagunak izateko beharrak, maitatuak izateko beharrak, jolasteko beharrak, ikastekoak, dibertitzekoak, gauza berriak ezagutzeko jakingurak...”.

### Antzezlan interaktiboa

Aktoreek (Aiora Sedano eta Maite Fombellida) sentsoreak jarrita daramatzate eta horrela, atzean duten pantailan euren txotxongilo interaktiboak proie-



ktatzen dituzte. Diana Franco Social Sound Giza-Interfaze Interaktiboak diseinatu duen enpresako KoSortzailearen esanetan, “interfaze bat ekoitzi dugu eta bi abantaila ditu: ikusentzunezko edukia kontrolatzen du eta txotxongilo interaktiboak integratzen ditu. Hau da, Kinect izeneko sentsoreen bidez aktoreen mugimendua irakurtzen da eta txotxongilo digitalak denbora errealean mugitzen dira”.

### Isildutako elkartasun kanpaina

Euskadi-Cuba elkarteak eta Eidabe Ekimen Kulturalak enpresak elkarlanean ekoitzi dute antzezlan eta Kuba Haitin, isildutako elkartasuna izeneko kanpainaren baitan kokatzen da ikuskizun hori. Kanpaina hegoaldeko herrialdeek martxan jarritako elkartasun-prozesuak ikusarazteko sortu zen. Hain zuzen, Iparra eta Hegoa ikuspegiarekin apurtzeko, eta errespetuan eta horizontaltasunean

oinarritutako herrien arteko lan-kidetza bultzatzeko asmoz.

Hala bada, Birginia Lara Eidabe Ekimen Kulturalak enpresako koordinatzaileak azaldu digunez, Euskadi-Cubak ideia proposatu zienean, antzerkia hautatu zuten sentsibilizatze tresna gisa: “antzerkia herrien arteko loturak estutzeko eta umeek beste kultura batzuk era dibertigarrian ezagutarazteko bidea dela uste dugu. Munduan bakarrik ez daudela umeek ikusarazteko modua ere bada; mundua ez direla hain bakarrik, mundua ez dela hemen bukatzen, gure muga txikiaren bestaldean mundu gehiago dagoela ikusarazteko era da, alegia”.

Estreinaldirako sarrera doakoa izango bada ere, etorrera baieztatu behar da. [info@eidabe.com](mailto:info@eidabe.com) 944 794 315